

BILBOKO BURTSA 1992. URTEAN

Ibon Alonso

Urte-hasieran Europako Batasun Ekonomikoaren eboluzioak sortutako baikortasunak interes-tasak jaitsiko ziren itxaropena piztu zuen eta balore-merkatuetan inbertsoreak burtsa-indizeen joera gorakorren lekuko izan ziren.

Baina Danimarkak Maastricheko akordioari emandako ezezkoak itxaropen horiek goibeldu zituen. Europako ekonomiaren (multzoan) egoerari buruzko albiste negatiboek (Espainiakoak bereziki), ezkortasuna sortu zuen burtsan. Urriaren amaieran gauzak erabat baretu baziren ere, berreskurapenaren ildoak pezetaren urteko bigarren baliogutxitzea ezagutu zuen.

Euskal balore-merkatuari lotuz, azpimarratu Bilboko Burtsak lortutako kontratazio-maila: Agiri Publikoen kontratazio-mailak sekulako gehikuntza somatu zuen, hots 1991eko 13.376 milioi pezetetatik 1992ko 200.481 milioietara pasatuz. Halaber, aipatzekoa da euskal burtsak Etengabeko Merkatuan partaidetza sendotu zuela, % 8ko kuota eskuratuta (1991ean % 4,6koa izan zen).

1991. urteko balantzea

Bilboko Burtsaren 1991. urteko balantzea positibotzat eman dezakegu, euskal merkatuak % 11,65eko irabazi metatua lortu zuelako. Hala eta guztiz ere, gehikuntza hau ondo aztertu behar dugu, Abenduko azken lau ekitaldian indize orokorrak % 8,40ko hobekuntza metatu baitzuen, batipat Estatuko erakundeen eragiketei esker.

Alorrei dagokionez, Eraikuntza eta Altzairugintzak galerekin itxi zuten urtea. Zerbitzuek berbalioztapen handiena (% 44koa) eskuratu eta Bankuek, beren aldetik, % 12,95eko hobekuntza gauzatu zuten. Elektrikoek tinko iraun zuten ganbioetan % 18,6ko batezbestekoa mantenduz.

Negoziaketa-bolumenari lotuz, marka hautsi zuen Bilboko Burtsak 1991.eko ekitaldian. Elkartrukatutako balioa 530.000 milioi pezetara iritsi zen. 1990. urtekoarekin parekatzen bada emaitza horrek % 71ko igoera lortu zuen.

Iberduerok Hidrolaren gain egindako Akzioak Erostea Eskaintza Publikoa (AEEP/OPA) alde batera utziko bagenu, merkatuko negoziazioak 300.000 milioikoa izaten segitzea da kontutan hartu behar dugun beste datu bat, aurreko joerari jarraituz. Urte honetako eboluzioa aztertuz begibistakoa da datu hori positiboa izan zela Bilboko Burtsarentzat.

Beste eragiketa ezohizko batzuk izan ditu azken urteotan Bilboko Burtsak. Baina hemen gertatu ez direnean ere euskal merkatuak indarrez erantzun du. Adibidez, 1989. urtean BBV eta Agroman elkarteak akzioak negoziatu baziren (guztira 107.000 milioiko muntantea eta negoziaketa osoaren % 33), hurrengo urtean, 1990.ean, eta eragiketa ezohizko nabarmenik gabe Bilboko balore-merkatuaren negoziaketa bolumenak % 5eko beherakada izan zuen. Horregatik ez da 1991.eko ekitaldian izandako bilioi erdiko marka inola ere gutxietsi behar.

Urtarrila

Urte hasieran Japoniako Burtsak izan zuten bilakaera positiboek eragin zuzena izan zuten euskal merkatuan. Datu honi atzerriko inbertsoreen itzulera erantsi behar diogu, 1991. urteko Kontsumorako Prezioen Indizearen (KPI) emaitzarekin batera. Lehen hilabetearen bigarren erdian gertatu zen jaitsierak New Yorkeko Burtsak pairatutako galerek itxuratu zuten, tentsio beherakorrak eta irregulartasunak erakarriz.

G7 Zazpi Handien Taldeak onartutako erabakiekin batera hilabete honen amaieran gorantzako joera nagusitu zen Europako burtsetan eta Wall Streeten ere baikortasuna piztu zen.

Otsaila

Urtarrileko KPIren emaitzari buruzko aurrikuspen baikorrak eta

New Yorkeko merkatuan emandako igoerak Bilboko Burtsaren emaitza positiboak itxuratu zuten otsaileko lehen bi asteetan. Eskariaren indartzea elektrikoak eta eraikuntza alorren eskutik iritsi zen. Gerorago, Japonian inoiz izandako eskandalu politiko-ekonomikorik handienak Tokioko Burtsaren prezioetan sekulako erorketa ekarri zuen Mendebaldeko merkatuak kolpatuz. Honekin batera urtarrileko KPIren emaitza kaskarrak inflazioaren aurrikuspenak erabat ilundu zituen.

Hilaren amaieran Europako burtsen joera gorakorak eragin zuzena eduki zuen euskal merkatuan. Bere aldetik, Altxor Publikoak urte bateko letren errentagarritasuna % 11,726an ezarri zuen, hots, 0,124 puntu jaitsiz. Hiru eta bost urteko bonoek eta hamar urteko obligazioen errentagarritasuna ere beheratu zen. Aktibo finko hauen erakarpena gutxitu eta likidezia errenta aldakorrerantz jo zuela azpimarra daiteke. Azkenik, datu positibotzat Wall Streetek hilabete honen bukaeran lortutako maila maximoa eman dezakegu.

Martxoa

Eskariaren jarrera hautakorrek prezioei erabat eustea lortu zuen. Hainbat enpresa handik 1991.eko ekitaldian izan zituzten emaitza onak, Wall Streeteko joera gorakorak eta Otsaileko KPIren aurrikuspen baikorrek tinkotasuna eman zioten errenta aldakorrari martxoko lehen ekitaldietan.

Baina ondoren gertatutako merkatuaren nekeak eta nazioarteko merkatuetako prezioen erorketak Bilboko Burtsaren jaitsiera eragin zuten. Dolarrak, bere aldetik, ordurako kotizaziorik altuena lortu bazuen ere, munduko finantza-merkatu guztien erakarpena eskuratu zuen. Dolarraren presioa zela medio, interes-tasek finko iraungo zuten ustea nagusitu zen inbertsoreen artean. Orain ere KPIren emaitza ez zen aurrikuspenekin bat etorri eta Bilbo eta Estatuko beste burtsen beherakadak eragin zituen.

Apirila

Tokio eta Londreseko burtsen beherakada gogorak euskal merkatua baldintzatu zuten. Altxorrek hileko lehen enkantean epe ertain eta luzeko aktiboen errentagarritasunak handitu zituen. Azken datu honek inbertsoreen ezkortasuna piztu zuen.

Baina bigarren hamabostaldian nazioarteko burtsen igoerek (New York, Tokio, Paris, Brussela, Zurich eta Londreskoek bereziki) inbertsoreen gogoak baretu eta hauen pausuak hainbat balio espekulatiborantz abiatu ziren.

G7 Zazpi Handiek apirilaren bukaeran Washintongen egin zuten bileran eztabaidatu ziren erabaki ekonomikoek nazioarteko burtsetako jakin eza eragin zuten.

Aipagarria da, bestaldetik, apirilaren 30ean ordenadore bidezko kontratazioan Bilboko Merkatuak eskuratu zuen partaidetza-kuota,

% 15,5koa, hain zuzen. Marka hori 1.835 milioi pezetako erosketak eta 1.633 milioiko salmentek ahalbideratu zuten.

Maiatza

Maiatzean merkatu primarioa eta sekundarioan interes-tasak mantendu egin zen, batipat inflazioaren emaitzak (% 0,leko jaitsierak) tasa horien beherapenik sortzeko ez baitzuen gaitasunik. Aipatu behar da inbertsore partikularren eta erakundeetakoen interesik eza errenta aldakorrean aktibitate orokorraren berraktibazioa adierazten zuten adierazleak faltagatik izan zela. Hala eta guztiz ere Londres, Tokio eta New Yorken izandako emaitza gorakorrek epe laburreko pausuak martxan jartzeko aukera eman zieten hemengo inbertsoreei.

Apirileko KPIk elektriko, komunikabide eta eraikuntza alorreko baloreak erostera bultzatu zituen, batez ere hiru alor hauek daukaten zor-maila handiagatik.

Maiatzaren 28an (27an Euskal Autonomi Elkartearen) egin zen greba orokorrak sortutako tentsioek mesfidantza ekarri zuten burtsara.

Ekaina

Aurreko hilabetean jakin zen apirileko inflazioak sortutako itxaropena ekainean ilundu zen maiatzeko KPIren emaitza kaskarra plazaratu eta burtsak jasandako ondorio larrien

ondorioz. Maastritcheko itunaren etorkizunak eta zor publikoaren bigarren merkatuaren errentagarritasunaren gorantzako joerak errenta aldakorren eskaria zeharo mugatu zuten. Soltxaga Ekonomia ministroak prezioen tentsio gorakorrek zuzentzeko neurriak behar zirela iragarri bazuen ere, interes-tasen mozketak ez ziren inondik aurriztatu. Defizit publikoak Estatuari sortu zion dirua bildu beharrek egoera kezkatuan utzi zuten balore merkatua: BEZ-aren igoerak ekar zezakeen inflazioaren beldurrak papera agertzea eta prezioak jaitea eragin zuen. Egun horietan kolperik gogorrena eraikuntza arloko baloreek pairatu zuten.

Uztaila

Hilaren 6an hasi zen G7 Zazpi Handien bilera berrian, Estatu Batuen eta Japoniaren helburua Alemaniak interes-tasak murriztea zen, ekonomia berpiztu zedin. Nazioarteko testuingurua makroekonomiaren estatistika beltzek itxuratua agertu zen. Alemaniaren moneta-politika murriztaileak irauteak zor handiak eta aurrezteko arazoak dituzten herrien zailtasunak handitu zituen. Uztailaren 8an New Yorkeko Burtsan izandako galeraren eraginez Dow Jones indizeak 3.300 puntuko maila psikologikoa galdu zuen.

Ekaineko KPIren emaitza positiboa (zero hazkundera, alegia) eta Wall Street ondoren berreskuratu zuen sendotasuna ez ziren hemengo merkatuko beherakada ekiditeko gai izan. Etengabeko merkatuan gertatutako ezegonkortasunak bankuen alorretako prezioen suntsipena

ekarri zuen pantailletara. Guzti hau gutxi balitz ere, Altxor Publikoak % 12,161era igo zuen urte bateko letren errentagarritasuna. Azkenik, Espainiako gobernuaren neurri ekonomikoek (diruaren prezioa % 13ra altxatuz) epe ertainean presio fiskala, inflazioa eta enpresen gastuak handitu zituen.

Abuztua

Abuztuan zehar Bilboko Burtsak atzerriko merkatuetara begira ihardun zuen. Ohi denez, negoziaketa-bolumen murrizak izan ziren etengabeko merkatuan eta paperaren presioak hainbat kotizazioen atzerapenak ugaltzea erakarri zuen. Merkatu jarrai honetan negoziaketa-mailarik txikiena hilaren 16an gertatu zen.

Hilabete honetan dolarrak balio-erorketa garrantzitsua pairatu zuen: abuztuaren 24ean dolarrak II Mundu-Gerraz geroztik kotizazio baxuena ezagutu zuen. Adituek iragarri zuten, Estatu Batuetako dibisaren erorketa geldiarazteko irtenbidea (Europako banku zentralen gaitasun ezaren ondoren), Alemaniako interes-tasak jaistean oinarritzen bazen ere, Bundesbankek ezin zituen tasa hauek gutxitu bi Alemaniak batzearen ondorioz sortutako inflazioa ekidin nahi bazuen.

Iraila

Hilabete honetan hainbat albistek eragina izan zuten burtsan:

- Defizit korrontearen emaitza: Uztailekoak 1991. urtekoaren osoa gaintu zen.
- Kotxe-salmentak %14,78 gutxitu ziren abuztuan.
- Altxorak irailaren 9an egindako urte bateko letren enkantean agiri hauen errentagarritasuna 0,25 handitu zuen.
- Ingalaterrako Bankuak %12ra handitu zuen interes-tasa.
- Milango Burtsak % 5eko jaitsiera izan zituen.
- Pezetaren % 5eko balio gutxitzea eta Banco de Españak ezarritako neurri murriztaileak.
- Hilaren 29an Frantzia Maastrichti buruzko erreferendumak baiezkoa garaile irten zen, gutxigatik baina.
- Kapitalen zirkulazioari murrizketak ezartzeak atzerriko inbertsoreen ihesa eragin zuen. Ondorioz, Burtsa eta zor-merkatuetan erorketa gogorak gertatu ziren.

Urria

1992. urtearen hasieran Bilboko Burtsaren zuzendariek 310.000 milioi pezetako erosketak bideratzea ezarri zuten helburutzat. Urte bat lehenago. Hidrolaren gaineko Akzioak Eroste Eskaintza Publikoak (AEEP/OPA) aurrikuspenak desbideratu zituen, berak soilik 220.000 milioi pezetako eragiketa izan zuelako. Ondorioz 1991.eko negoziaketa-maila 515.412 milioikoa izan zen.

1992. urteko lehen hamar hila-betetan aurrikuspenak gaintu ziren, 328.105 milioi pezetako negoziaketa-maila lortu baitzen urtarriletik urrira

doan epean. Gainera, urte-amaierararte Auroraren esklusioa (burtsatik at geratzeko, alegia), Iberdrolaren balioen truketzea eta urte-bukaerako karteren berdoikuntzak egiteke geratu ziren.

Bilboko Burtsatik etengabeko merkatuan bideratutako kontratazioa urrian zehar 44.048 milioi pezetakoa izan zen eta negoziaketa-bolumen honek osoaren %07ko partaidetza-kuota eman zion euskal merkatuari.

Azaroa

Burtsan eragin negatiboa sortu zuten albisteak:

- Langabeziaren gehikuntza.
- Enpresek 2. trimestreko emaitzak iragarri zituzten.
- Azaroaren 23an Europako moneta-krisi berriak diruaren prezioa % 13,75ra igotzera bultzatu zuen Espainian.

Burtsan eragin positiboa eduki zuten albisteak:

- Urriaren KPIren emaitza positiboa (% 0,1). Interes-tasen mozketak Italia, Frantzia eta Britainia Haundian.
- IBCAren txosten batek Espainiako banka munduko errentagarri eta saneatuna dela iragarri zuen. Datu honek burtsan dirua bankuen alorrera mugitzea ekarri zuen.

Azaroaren 21ean Europako Elkar-teko Moneta-Batzordeak egindako

premiazko bileran pezeta % 6 balio gutxitzea erabaki zen. Neurria pezetak markoarekiko jasaten zuen ahultasunak bultzatu zuen. Ondorioz, Banco de España-k kapitalen mugimendua murrizten zuen zirkularra indarrrik gabe utzi zuen. Lehen aipatu dugun diruaren prezioaren igoera (% 13,75ra), pezetaren egoera berria mantentzeko ezarri zuen Banco de España-k.

Abendua

Urteko azken hilabetearen amaieran Europako krisiaren errektibazioarekin batera Frantziak moneta-tentsio berriak izan zituen: Frantziako Bankuak liberak erosteari ekin zion dibisari eusteko. Espainian gauzak bareago bazeuden ere, Banco de España-k likidezia sartu zuen moneta-merkatuan gordailu-agiriak eta zorra erosiz.

Suitzak Europako Elkartean sartzeko emandako ezezkoa Edinburghen egin zen gailurra goibeldu bazuen ere, hamabien bilerak bilakaera positiboa eskuratu zuen.

Bilboko Burtsak hiru aldagai lagungarri izan zituen abenduaren bigarren erdian:

- Kutxa-koefizienteen mozketak.
- Estatuko sarreraren emaitza ona (347 mila milioi pezetako kutxa-superabita)
- Azaroko KPIren emaitza positiboa (zero hazkunde).

Europako moneta-sistemaren krisiaren kronologia

Abuztuaren 20an libra esterlinak gutieneko maila berri bat lortu zuen EMSren barruan, dolarrak jasandako erorketak eragindakoa hain zuzen.

Abuztuaren 24ean nazioarteko merkatuetan banku zentralak egindako interbentzioek ez zuten dolarraren sostengua lortu eta inbertsoreak markorantz bideratu zituzten beren eragiketak. Libra esterlinak beste gutxieneko maila bat izan zuen eta lira italiarra hondoratu egin zen. Pezetak, bere aldetik, markoarekiko azken bi urteetako kotizaziorik txikiena izan zuen.

Abuztuaren 25ean Frantzia egindako iritzi-inkestek Maastrichteko akordioaren ezezkoa garaitzat eman zuten eta datu honek libra esterlina kaltetu zuen. Pezetak markoarekiko balio gutxitze gogorra pairatzen du.

Abuztuaren 28an Europako Elkarteko Ekonomia ministroak birlerrotzarearen aurka azaldu ziren.

Irailaren 2an markoaren pezetaren aurkako eskaria indartu egin zen.

Irailaren 4ean Italiak interes-tasak igo egin zituen.

Irailaren 5ean Europako Elkarteko Ekonomia ministroek EMSren berlerrotatze bat martxan jartzeko egitasmorik ez dagoela aditzera eman zuten.

Irailaren 9an libra esterlinak 2,7875 markoren trukera jaitzi zen. Inbertsoreak markoak erosteari ekin zioten. Suediak 75 puntura handitu zituen bere interes-tasak. Italiako gobernua lira erreskatatzen saiatu zen. Banco de Españaren interbentzioak pezeta markoarekiko kotizazioa mantentzea lortu zuen.

Irailaren 10ean John Major-ek azpikeriatzat jo zuen EMSren barruan berlerrotatze bat egitea. Libra esterlina egoera kritikoan sartu zen. Banco de Españaren interbentzio gogorrak 150.000 milioi pezetako dirutza suposatu zituen pezeta babesteko bi egunetan burututako eragiketetan.

Irailaren 13an lira balio gutxitu egin zen eta Alemaniak interes-tasak jaitzi egin zituen.

Irailaren 14ean Alemaniak bezperan erabaki zituen interes-tasen mozketak moneta-merkatuek uste zuten baino txikiagoak dira. Bestalde, pezeta markoarekiko berbalioztatu egin zen.

Irailaren 15ean libra esterlina hondoratu egin zen eta merkatuek Britainia Haundiko dibisa saltzeari ekin zioten eta librak beste gutxieneko maila bat izan zuen.

Irailaren 16an finantza-merkatuen krisia ganean dela, Britainia Haundiko gobernuak libra EMStik at geratzeko erabakia hartu zuen.

Irailaren 17an lira EMStik irten eta pezeta % 15eko balio gutxitu zen, hamar urtetan izan zuen lehen balio gutxitzea, hain zuzen.

Euskal Zor Publikoaren garrantzia Bilboko burtsan

Euskal zor publikoaren negoziaketak, bereziki Euskobonoak, Bilboko Burtsaren 1992. urteko kontratazio-bolumena indartu zuen. Lehen estimazioen arabera kontratazio-bolumen osoa 590.551 milioi pezeta efektibotan finkatu bada ere. Horietatik 200.481 milioi euskal zor publikoaren kontratazioari dagozkio. Kontuan izan behar dugu 1991.ean negoziatu ziren efektu publikoen dirutza 13.000 milioi pezetakoa izan zela. Aldiz, akzioak eta obligazioak 357.462 eta 32.608 milioikoak, hurrenez hurren, izan ziren. Emaiza hauek 1991.eko ekitaldiarekin parekatuz, % 21 eta % 32ko beherapenak suposatu zuten akzio eta obligazioen kontratazioan.

Beste aldetik eta Burtsen Elkartearen datuen arabera, Bilbok Etengabeko Merkatuan lortutako partaidetza-kuota % 7,32koa izan zen, Bartzelonako Burtsaren aurretik.

Estatu mailan zor publikoaren merkatuak portaera negatiboa izan zuen 1992. urtean. Ez egoiliarren inbertsioak eta Altxor Publikoak epe ertainean finantzatzeko lortutako erraztasuna murriztu egin ziren urtearen bigarren erdian, 1991. urtean hasitako joera puskatuta. Maiatzean ez egoiliarren saldoa 2,7 bilioi pezetakoa izan bazen ere, abenduaren 31ean 1,9 bilioitan ezarri zen.

Ekainaren 4ean Danimarkak Maastritcheko Akordioari ezezkoa eman

zionetik aurrera, atzerriko inbertsoreen presio saltzaileak prezioen beherakada ekarri zuen, banku eta aurrezki kutxen galerak sortuz (bilioi erdi pezetakoa, alegia). Ondoren, Banco de España-k errenta finkoko karteren galeren horniketen tresneria bigundu zuen. Baina irailean, banku jaulkitzaile honek ganbio-murrizketak ezarri zituen eta Moody's elkarte kalifikatzaileak Espainiako Erresumaren zorraren errebisioa egitea erabaki zuenean zor-agirien uholde saltzailea larriagotu zen. Obligazioen tasak % 14,08ra handiagotu ziren urrian.

Altxor Publikoak hilabete eta erdi, hiru eta sei hilabeteko letrak estreinatu zituen 1992an. Bere zorraren batezbesteko adina luzatzeko helburua datorren ekitaldirako baztertu beharko du Altxorrek, bono eta obligazioen jaulkipen garbia 1,1 bilioikoa izan da eta (1991ean 2 bilioikoa); gainera letren jaulkipena 406.300 milioitik 1,9ra bilioira handiagotu da.

Burtsa-elkartek eta agentziak

Burtsa-elkarteen arloak ekitaldi larri bat bizi izan zuen 1992. urtean. Emaitez lur jo zuten, batez ere kontratazio-bolumenaren murrizketa eta komisioren liberalizazioak eraginda.

Lehen hamar hilabetetan burtsa-elkartek eta agentzien irabaziak % 76,4 gutxitu baziren, pairatzen duten krisiari aurre egiteko hainbat estrategia martxan jarri dira:

- Atzerriko kapitalen sarrera.
- Elkarte eta agentzietako langile-kopuruaren murrizketa.
- Fusio-prozesuak.

Egoera latz honek ez zuen, hala eta guztiz ere, burtsa-elkarterik itxi. Dena den, adituek elkarre hauen kopurua handia dela azpimarratu dute. Alorreko iturriek iragarri dutenez, balore-elkarre eta agentzien etorkizuna 1993.an zalantzan jartzen da, are gehiago kontratazio-mailek ez badute gora egiten.

BBV Interactivos 1992ean eten-gabeko merkatuan kontratazio-bolumen handienik lortu duen elkarre da. 797.782 milioi pezeta efektibo negoziatuta. Bigarren postuan Banco Santanderreko BSN elkarre dago 688.334 milioiko kontratazioa lortu eta gero.

Akzioak erosteko eskaintza publikoak (OPAk)

Zementugintza-arloko enpresak izan dira bereziki 1992. urtean Akzioak Erosteko Eskaintza Publiko (OPAk) gehienen helburua eta urte bat lehenago elektrikoaren alorretakoak eduki zuten protagonismoa eskuratu zuten.

Maiatz eta ekainean bitartean Cementos Alfa, Cementos Rezola, Valenciana de Cementos eta Sanson enpresen gain OPAk luzatu ziren. Garrantzitsuena Sanson enpresarena izan zen, akzio bakoitzeko 19.000 pezetako salneurria erregistratu zuen. Guztira 15 konpainien gain luzatu

ziren OPAk. Hain zuzen 1991. urtean izandakoen erdia baino gutxiago. Lehen aipatu dugunez, 1991.ean Espainiako mapa elektrikoaren berrantolataketaren urtea izan zen.

Akzioak Erosteko Eskaintza Publikoaren artean El Encinar de los Reyes elkarrearen gain Olazabal sendiak eta BBV-Metrovacesak luzatutakoa aipatu behar dugu, OPA honek legediaren hainbat hutsunek konpainiaren kontrola eskuratzeko bide berriak zabaldu baitzituzten. Azkenean eskaintza bikoitza aurkeztu zuten bi taldeek Balore-Merkatuaren Batzorde Nazionalaren (CNMV/BMBN) tarte-karitzaren esku-sartzearekin.


Bankuen alorrean azpimarratu Progreso eta Comercial Transatlántico elkarreen gain luzatutako OPAk.

Bilboko Burtaren indize orokorra % 7,69 jaitsi zen 1992an zehar, ekitaldia 303,33 mailan itxiz, hots, 1991.ekoa baino 25,71 puntu gutxiago.

Alor desberdinen portaerari dagokionez, esan inbertsio eta aseguruaren arloa izan zela 1991. urtean emaitza positiboa lortu zuen bakarra alor-indizearen % 11,34eko gehikuntza eskuratu ondoren. Emaitzarik kaskarrena Altzairugintzak pairatu zuen, % 68,03ko jaitsierarekin. Eraikuntzaren alorra %34,51 beheratu zen, Elikadura % 26,30, Kimikoak % 13,85, Zerbitzuak eta gainontzekoak % 8,69, Bankuak % 4,16 eta Elektrikoak % 3,21.

BILBOKO BURTSA

Indize Orokorra 1992. urtean




Egutegia: Bilboko burtsaren testuingurua

- 1 Japoniako balore-merkatuaren bilakaera positiboa. Atzerriko inbertsoreak itzuli.
(346,67) 1-9
- 2 Abenduko KPIren emaitzak harrera ona Bilboko Burtsan.
(348,81) 1-15
- 3 New York eta Tokion izandako beherakaden eragina.
(342,99) 1-24
- 4 New Yorkeko igoera. Ondoren Urtarrileko KPI kaskarraren eragina.
(356,61) 2-12
- 5 Joera gorakorrak nazioarteko merkatuetan.
(361,34) 3-2
- 6 Otsaileko KPIren emaitzak beherapenak sortzen ditu burtsan. (351, 19) 3-12
- 7 Diru eskasia eta jakineza: inbertsorea balorea espekulatiboei begira.
(342, 15) 3-25
- 8 Bankuen arteko interes-tasen beherapena.
(349,02) 3-30
- 9 Tokioko burtsak pairatutako galera metatuak Mendebaldean somatzen dira.
(335,31) 4-1 1

- 10 Apirileko KPIren emaitzak dirua indartzen du burtsan.
(357, 65) 5-14
- 11 Greba orokorra.
(353, 62) 5-7
- 12 New Yorke eta Tokion aurrerapenak.
Danimarkak ezezkoa Maastricheko akordioari.
(356, 28) 6-4
- 13 Maiatzeko KPIren emaitza larria.
(344,43) 6-14
- 14 Defizit publikoaren egoera kaskarra eta Balio Erantsiarekiko Zergaren igoera iragartzen da.
(322,43) 7-2
- 15 Altxor-letren errentagarritasuna % 12,161ra igotzen da.
(314,75) 7-16
- 16 Banco de Españak diruaren prezioa % 13ra igo zuen.
(299, 54) 7-23
- 17 Dolarraren beherakadak Europako banku zentralen eragiketak bultzatzen ditu.
Nazioarteko burtsak maldan behera.
(288,91) 8-26
- 18 Dolarrak egonkortasuna berreskuratu.
(311,70) 9-3
- 19 Altxor Publikoak letren errentagarritasuna %13,231an finkatzen du.
(300,15) 9-10
- 20 Pezetaren lehen baliogutxitzea (% 5)
Frantziak baiezkua Maastricheko akordioari.
(310,27) 9-17
- 21 "Ostegun Beltza"
(279,87) 9-24
- 22 Europako agintarien bilera Alemanian.
Bilboko burtsaren indize orokorraren urteko minimoa.
(269,14) 10-1
- 23 Banco de Españak bertan behera uzten du dibisen zirkularra.
(283,70) 10-8
- 24 Atzerriko inbertsoreak Espainiako burtsetara itzultzen dira.
Pezetaren bigarren baliogutxitzea (%6).
(315,60) 11-17
- 25 Suitzak ezezkoa Europako Elkartean sartzeari.
(311,60) 12-1


INFLAZIOA 1992. URTEAN

Kontsumorako Prezioen Indizea




BILBOKO BURTSIA 1990-92 URTEAK

Kontratazio-bolumena




ETENGABEKO MERKATUA 1991-92

Partaidetza-kuota




ETENGABEKO MERKATUA 1992

Partaidetza-kuota



ETENGABEKO MERKATUA 1992. URTEA

Kontratazio-maila



Bibliografia

AMAT, O.; *La Bolsa. Funcionamiento y Técnicas para invertir*, Ed. Deusto, Bilbao, 1987.

MAPFRE INDOSUEZ; *Informe Mensual Diciembre 1992*, Mapfre Indosuez, S.V., S.A. Madril, 1992.

MARTIN OVIEDO, J.M.: *Ordenación legal del sistema financiero español*, Ed. Civitas, S.A., Madril, 1987.

Grafikoen iturria:

-Inflazioa 1992. urtean: *Euskaldunon Egunkaria* 1992ko abenduak 15.

-Etengabeko Merkatua 1992-91: Burtzen elkarte

-Bilboko Burtsa 1990-92 Kontratazio-Bolumena: Bilboko Burtsa.